

BALIO PROPOSAMENA

Gaur egun, ez dugu hezitzaileak, gurasoak eta haurrak elkartzeko lekurik aurkitzen. Horregatik, gure ideia espazio hori sortzea da. Kasu askotan, honen beharra duten pertsonak ez dute non bildu, ekintzak egin, formazioa jaso, bakoitzaren esperientziak eta haurren inguruko bizipenak partekatu...

Gure ustez, ez dago konpetentzia egingo digun beste enpresarik, lehen adierazi dugun bezala, ez dagoelako guk eskeiniko dugun zerbitzu parekorik.

Haurren inguruan lan egiten duten eta bizi diren guraso, hezitzaile, sortzaile... Bizi-kalitatea hobetzeko proiektua da. Hainbat ekimen eta proiektu aurrera ateratzeko bitartekaria.

Gizarteak eskatu eta aportatu nahi duenaren arabera, gure metodologia edo dinamika aldatuz joango gara.

Hasteko, esan nahiko genuke, gure proiektua aukera paregabea izan daitekeela, aurretik eskeini izan ez den zerbitzu mota bat eskeintzen dugulako. Ideia hau aurrera eramateko, pentsatu dugu trukean aritu ahal ginatekeela ekintza anitzak emanaz.

Haurrak hezteko edo gurasoak/hezitzaileak haurrak hezten ikasteko proiektua da. Gehien bat, gizarte aurrera doan bitartean, gure etxeko txikiak era egoki baten hezi nahi ditugu. Hau da, homofobia pentsamendu gabe, hizkuntza ez bortitz batean, arrazakeria pentsamendu gabe...

Proiektu honek ez dio hurrei bakarrik onura egiten, helduentzat ere zuzenduta dago baina garrantzi handia ematen diegu hurrei, gure ustez etorkizuna direlako.